

UNIBASQ-EKO EBALUATZAILEAK HAUTATZEKO PROTOKOLOA

1.- Sarrera

Dokumentu honek Unibasq agentziaren berezko ebaluazio-prozesuetan parte hartuko duten ebaluatzaileak hautatzeko eta izendatzeko Unibasq agentziak berak jarraitu beharreko irizpideak eta prozesua biltzen ditu eta izen bereko aurreko dokumentua Zuzendaritzak 2012/09/11n onartutakoa ordezkatzen du.

Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziari buruzko ekainaren 28ko 13/2012 Legearen 10. artikulua lehenean ezartzen duenez, “Ebaluazio-batzordeak organo zientifiko-teknikoak dira, eta horien bidez garatzen ditu agentziak ebaluazio-, egiaztatze- eta ziurtatze-prozesuak” eta bigarren puntuak hurrengo adierazten du “Honako hauek osatzen dituzte ebaluazio-batzordeak:

- Ospe handiko akademikoek. Batzorde bakoitzean gehiengoa izan beharko dute euskal unibertsitate-sistematik kanpoko akademikoek.
- Ebaluatu beharreko arloetako ikasleek, ikasleen gaineko eragin zuzena duten programa eta jardueretan. Ikasleek Euskadiko unibertsitate-ikasleek parte hartzeko duten berariazko organoak izendatuko ditu.
- Ebaluatu beharreko arloetako ospe handiko profesionalak, titulazioak ebaluatzeko programetan.”

Unibasq agentziako ebaluatzaileak hautatzeko irizpideen kasuan, *European Association for Quality Assurance in High Education* (ENQA) erakundeak Goi Mailako Hezkuntzako Europar Esparruan kalitatea bermatzeko ezarritako irizpideak eta jarraibideak, eta *European Consortium for Accreditation* (ECA) erakundeak adituak hautatzeko adostutako printzipioak hartu dira kontuan.

2.- Izangaiak erakartzea

Unibasq agentziak eskura dituen bitarteko guztiak jarriko ditu agentziak berak kudeatzen dituen programen barruan ebaluazio-, egiaztatze- eta ziurtatze-zereginetan parte har dezaketen irakasleak, ospe handiko profesionalak eta ikasleak erakartzeko.

Ebaluatzaileak izan daitezkeen izangaiak lortzeko iturrien artean, agentziak horretarako garatutako aplikazio informatikoetan bildutako datu-baseak, Aholku Batzordearen proposamenak, beste ebaluatzaile batzuenak, ebaluazio-agentzien artean elkartrukatutako datu-base baimenduak eta abar aipa daitezke.

Europar Batasuneko kide diren beste herrialde batzuetako irakasleei dagokienez, Unibasq agentziaren ebaluazio-batzordeetako eta Aholku Batzordeko kide atzerritarren, ENQA Sareko agentzien eta beste ebaluazio-agentzia batzuen lankidetzak eskatuko da.

Ebaluatzaile gisa lankidetzan jardungo duten profesionalak, berriz, profesionalen elkargo edo elkarteen, merkataritza-ganberen eta ospe handiko profesionalengana eraman dezakeen beste edozein iturriren bidez erakarriko dira.

Ebaluazio-batzordeetako ebaluatzaile gisa parte hartzen duten ikasleak Euskadiko Unibertsitateko Ikasleen Aholku Batzordeak izendatuko ditu. Ikasleen datu-basea eratzeko, harremanetan jarriko gara ebaluazio-agentziekin, unibertsitateekin eta ikasleen elkarteekin, eta, ahal den neurrian, prestakuntzako eta prestakuntza aitortzeko lankidetzeta-hitzarmenak egingo dira haiekin.

Kasu guztietan, ebaluatzaile-gaiei Unibasqeko ebaluatzaile bankuan izena emateko eskatuko zaie, bertan dagozkion profileko datuak eman beharko dituzte.

3.- Ebaluatzaileak hautatzea

Ebaluazio-batzordeetako kide izateko eta batzorde horietako presidente izateko baldintzak Aholku Batzordeak onartuko ditu profil bakoitzerako. Berariazko baldintzak eskatzen dituzten programen kasuan, baldintza horiek ere definitu egingo ditu Baldintza guztiek eranskin bat osatuko dute. Eranskin hori prozedura honi erantsiko zaio, eta eranskina aldatzeak ez du prozeduraren aldaketa ekarriko.

Datu guztiak zuzenak direla eta izangaiak betebeharrak betetzen dituztela egiaztatu ondoren, Aholku Batzordeak ebaluatuko ditu.

Aholku Batzordeko gutxienez bi kidek –ahal bada izangaiaren jakintza-esparru berekoak– espediente bakoitza ebaluatuko dute bereiz, hark emandako datuen arabera. Izangai baten ebaluazioen inguruan adostasunik ez badago, Aholku Batzordearen osoko bilkuran erabakiko da.

Ikasleen hautaketa Euskadiko Unibertsitateko Ikasleen Aholku Batzordeari dagokionez, betebeharrak definitzeko eta izangaien ebaluazioa egiteko elkarlana bultzatuko da

Ebaluazio-batzorde osieran, ahal bada, ebaluatzaileek hainbat unibertsitatetan egingo dute beren jarduera, 13/2012 Legearen 6. artikulua 4. puntuan ezarrita dagoen gizonen eta emakumeen arteko oreka errespetatuko da, eta irakasle gehienak euskal unibertsitate-sistematik kanpokoak izango dira. Halaber euskaraz ebaluatzeko gai den kideren bat egotea saiatuko da.

Hautagai guztiek baja eskatu ahal izango dute erabakitzen duten unean, eta, Izaera Pertsonaleko Datu-Babeseko, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoari jarraiki sartzeko eskubideak, zuzenketa, indargabetzea eta oposizioa beti erabili ahal izango dute evaluadores@unibasq.org-i zuzenduz.

4.- Ebaluazio-batzordeetako kideen izendapena

Aholku Batzordeak onartutako hautagai bat ebaluatzaile bezala izendatu baino lehen, Agentzia harekin harremanetan jarriko da bere prestasuna egiaztatzeko asmoz.

Aholku Batzordeak eta Euskadiko Unibertsitateko Ikasleen Aholku Batzordeak proposatzen dituen eta proposamena onartzen duten batzordekideak izendatuko ditu Agentziako zuzendariak. Ebaluazio-batzordeak osatzen dituzten pertsonak hiru urterako izendatuko dituzte, eta ezin izango dira berriz izendatu kargua utzi eta hiru urte igaro arte.

Batzordeetako kide kopurua Agentziaren Zuzendaritzak ezarriko du deialdi bakoitzeko premien arabera.

Funtzioak betetzeko, eta ebaluazio-prozesuaren ezaugarrien arabera, batzordeek adituen aholkularitza jaso ahal izango dute, eta aditu horiek bakarka edo batzordeetan txertatuta jardun ahal izango dute. Aditu horiek hautatzeko, ebaluazio-batzordeetako kideak hautatzeko erabiltzen diren irizpide berak aplikatuko dira.

5.- Ebaluazio-batzordeetako kideei informazioa eta prestakuntza ematea

Unibasq agentziak ebaluatzaileen eskura jarriko ditu kalitateko ebaluazioa egiten lagunduko duten informazioaren eta prestakuntzaren alorreko elementuak eta sistemak.

6.- Ebaluazio-batzordeen jarduna

Ebaluazio-batzordeak osatzen dituzten pertsonak ez dute beren kolektiboaren edo erakundearen ordezkari gisa betetzen beren zeregina, euren izenean eta irizpide-independentziarekin baizik.

Ebaluazio-batzordeek era kolegiatuan jardungo dute.

7.- Ebaluazio-batzordeen jarraipena eta ebaluazioa

Ebaluazio-batzordeek egindako lanean etengabeko hobekuntzako irizpideak aplikatzeko, batzordeek lana betetzeko modua balioetsiko da urtean behin. Alde batetik, agentziako teknikariek ebaluatzaile bakoitzaren lanaren betetze formala ebaluatuko dute. Bestetik, ebaluazio-prozesua urtean behin meta-ebaluatzea eskatuko zaie ebaluatzaileei.